



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 28a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Erriberako zenbait baratze-eremutan barazkiak belzten dituen birusari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Programa berekiak” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Larrialdietako Agentziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Donejakue bideko autobideko seinale bertikalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, ikasturte hasieran gabeziak dituzten ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuan 2006. urtean Larraina klubari emandako diru kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2006ko azaroaren 4ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Legearen tramitazioa bukatu orduko aurkezten zaigu foru lege hori bera eta garrantzi handiko beste batzuk –esate baterako Sozietateen gaineko zergari buruzkoa eta Tributuari buruzko Foru Lege orokorra– aldatzeko foru lege proiektu bat.

Aurkezten zaigun proiektuak bederatzi artikulatu ditu; lehenbiziak, PFEZa aldatzen baitu, hirurogeita hiru idatz-zati ditu, eta hirugarrenak, Sozietateen gaineko zerga aldatzen baitu, berrogeita lau.

Horra, bada, osoko zuzenketa hau justifikatzeko lehen arrazoa, formazko arrazoitzat har dezakegun: halako garrantzia duten zergak, PFEZA

eta sozietateen gainekoa alegia, arautzeko testu oso eta gaurkotu bat prestatu beharrenean, testu indardunen aldaketa aurkeztu zaigu beste behin. Eta aldaketa horiek 2007ko aurrekontuen lege proiektuarekin batera tramita dadila nahi da, horiek lasai eta sakon eztabaidatzea ekidinez.

Osoko zuzenketa hau aurkezteko bigarren arrazoa mamiari dagokio; izan ere, laneko errentei ordez kapital- eta enpresa-errentei mesede egiten dien tributu-esparru bat sortu nahi du legegileak Nafarroan. Halatan, PFEZaren azken aldaketaren bidez, mesede egiten zaie errentarik altuenei, murrizketan zerga-oinarrian egiten direlako, eta ez kuota-kenkarian; kapital-errentek ehuneko 15 ordaintzea proposatzen zaigu orain, araubide komunean ezarritako ehuneko 18aren ordez. Sozietateen gaineko zergaren kasuan, zerga-tasak jaitea eta egungo kenkariak mantentzea proposatzen da; horrenbestez, diru-bilketaren kostua araubide komuneko kostu zenbatetsia baino askoz era handiagoa izanen da, proportzioz, Nafarroako Zerga Ogasunarentzat. Hori guztia, enpresen etekin ustez errekor berri bat lortuko duten urtean.

Beraz, formari eta, batez ere, mamiari buruzko arrazoiak direla eta, Foru Lege proiektu hau Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen du Nafarroako alderdi sozialistak.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Gobernuak aurkeztu duen proiektuak ez du balio gure zerga-sistemaren akatsak konpon-

tzeko, esaterako gehikortasun eskasa eta politiko publikoak finantzatzeko baliabideak sortzeko gaitasun urria.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Lege proiektu hau presako prozedura baliatuta igortzea ez da zentzuzkoa, eta gobernatzeko jarrera eta modu jakin baten erakusgarri da, aurreikuspen falta handiaz ez ezik proiekturik izan gabe ere gobernatzen delako seinale.

Gobernuak presio taldeek akuilatuta jarduten du, bezerokeriak gidatuta askotan, eta ez du aukerarik ematen lasai eztabaidatzeko, adabakiak jartzeko jarduketak egiten baititu.

Legebiltzarrean Kooperatibei buruzko Foru Legea eztabaidatzen ari den une berean, lehengo legea ordeztu eta erreferenziako arau izateko asmoz, nekazaritzako kooperatibak ukitzen dituen araudia aldatzea proposatzen da, hain da muturrekoa inprobisazio-jarrera hori.

4. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Nafarroako Gobernuak tarifa tartearak jaistea proposatu du beste behin ere, eta, horrela, gehikortasunean aurrera egin beharrean, zuzeneko zergak jaisteko joerari eutsi zaio, halako moduz non zerga horiek bidezkoagoak bihurtzeko aukera galdu baita. 2003an zortzi tarifa tarte bazeuden, orain, aldaketa honekin, sei izanen dira, eta, horrela, zuzeneko zergen gehikortasuna nabarmen gutxituko da.

Gure parlamentu-taldeak bere egiten ez duen ikusmolde ekonomiko baten isla dira, baina horrezaz gain, datuak eurak ari dira erakusten politika hori ez dela gauza Nafarroako herritarren egiazko beharrezanean erantzuteko. Izan ere, lege proiektu honekin aurreikus daiteke zuzeneko zergen bidez bildutako dirua gutxiago izanen dela, eta begi bis-

takoa da zerbitzu publiko garrantzitsuetan baliabideak jarri behar direla, hala nola osasunean, hezkuntzan eta alternatiba industrialen gauzatzean.

Berriz ere errentarik altuenak dituztenentzat da mesedegarrien Gobernuaren proposamen hau; horien portzentajeak ehuneko 2 egiten du behera, eta arinduenak, lehen batean, presio ekonomiko txikiena dutenak dira. Lau urtean, bost puntu hobetu zaie egoera (%47tik %42ra).

Errenta ertainek, bestalde, zerga ahalegin handiagoa egin beharko dute, eta, horrela, nahiz eta esan "presio fiskala arindu eta familien egoera hobetuko dela", baieztapen hori zalantzarria gertatzen da erabat. Argi ikus daiteke nola dirusarrera ertaineko tartean dauden herritarren presio fiskalaren gorako joerari eusten zaion. Proiektuak tarifaren deflaktazio automatikorik ere ez du aurrakusi, presio fiskala sistematikoki orekatzeko.

Argi dago zeharkako zergek gora egin dutela; zeharkako zergek berdin eragiten die herritar guztiei, eta zuzenekoez, berriz, herritar bakoitzari duen errenta-mailaren arabera eragiten diote. Hau da, zeharkako dirusarrerei ematen ari zaie nagusitasuna zuzeneko dirusarrerei eman beharrean, eta ez da inongo ekintzarik gauzatzen aberastasunaren banaketa eta ezberdintasunen desagertzea sustatzeko. Horrenbestez, frogatuta dago tributu proposamen atzerakoia dela hau; izan ere, sistema fiskaletan aurrerakoitasun gutxienean duena da, dirusarrera handienak dituenari gutxiago ordainarazten baitio eta kenkariak zerga-oinarrian ezartzen baititu zerga-kuotan ezarri beharrean. Zuzeneko eta zeharkako zergapetzearen arteko erlazioa %36-%48 izan daiteke, eta parlamentu-talde hau ez dator bat joera horrekin.

Egia da hurrenez hurrengo ezezkoen ondotik, proiektu honetan Gobernuak, hein batean, beharrean dauden zenbait talderen egoera hobetu behar dela aitortu duela. Hala ere, oro har, tributuak aldatzeko proiektuak ez ditu ahal den guztian baliatzen gure tributu-ahalmenak, ez dute helburu gizarte zuzenago eta orekatuagoa lortzea; gainera, bere bizkar du kanpoko enpresek inbertsioak egin eta aberastasuna sortzearen menpekotasun ekonomiko estrukturalaren zama.

Planteamenduok gure pentsamolde sozialen aurka egiten dute erabat, bai eta auto-gobernuaren irismenaren aurka eta autogobernu hori gure erkidegoaren garapen zuzenaren eta aurrerapenaren zerbitzuan jartzeko aukeraren aurka eta gizarte-ongizatean eta gizarte-justizian aurrera egiteko behararen aurka ere. Hori dela eta, osoko zuzenketa hau aurkeztu dugu, eta 2207ko ekitaldirako

tributuei buruzko Foru Legea Gobernuari itzul dakion proposatzen dugu.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Orain dela egun gutxi batzuk eztabaidatu zen PFEZari buruzko Foru Legea. Ez da logikoa irakurketa bakarraren bidez aldatzea.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 13. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. 14. 2. a) artikuluko 3.a.

“3.a Pentsio planen onuradunek hartutako prestazioak eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jardueri eta haiek gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan araututako pentsio planetatik hartutakoak, zerga-oinarriari murrizketa izan duten ekarpeni dagozkienak.”

Zioak: Argitzea ezen soilik laneko errendimenduak direla baldintza hori betetzen duten prestazioak.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari idatz-zati bat, 14. bis, gehitzeko zuzenketa. 16.1.a) artikuluko 2.a.

“Gainontzekoetan, lurralde kontribuzioaren edo ondasun higiezinaren gaineko zergaren eraginetarako aipatu etxebizitzak duen katastro-balioari ehoneko bost aplikatu ondoren ateratako zenbatekoaz. Etxebizitzak katastroko baliorik ez badu, aurreko portzentajea erostean ordaindutakoari aplikatuko zaio.”

Zioak: Araudi komunari egokitzea diruzkoak ez diren laneko ordainsarien balorazioa.

4. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 15. idatz-zatia kentzeko zuzenketa –PFEZari buruzko Legeko 24. artikulua aldatzen du 1. artikulua–.

Zioak: Gure ustez, galdagarritasun printzipioa interesgarria izan daiteke sozietateen gaineko zerga bezalako kasuetan, baina ez gaude ados errentaren gaineko zergaren kasuan baliatzearekin, zerga horren kasuan kutzako irizpidea baliatu behar delako.

Alokairuko etxebizitzaren merkatuan ordaindu gabeko arazoa gertatzen denez, neurri horrek eragin lezake alokairuko etxebizitzaren eskaintza jaistea.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 39. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa: 55.1 artikulua. 1.1. idatz-zatia aldatzea

“Pentsio planetako partaideek egindako ekarpenak, sustatzaileak plan horietara egindako kontribuzioak barne, laneko errendimendu gisa egotzi baldin bazaizkie.”

Zioak: Argitzea laneko errendimendu gisa egotzitako ekarpenetara mugatzen direla murrizketak.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari idatz-zati bat, 39. bis, gehitzeko zuzenketa. 55.1 artikulua. 7.b) idatz-zatia aldatzea

b) 10.000 euro urtean.

Zioak: Araubide komunean ezarritako mugetara egokitzea egin daitezkeen murrizketen zenbatekoak.

7. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari idatz-zati bat, 41. bis idatz-zatia, gehitzeko zuzenketa.

Berrogeita batgarrena bis. 59.1 artikulua.

1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Tasa aplikagarria (ehunekoa)
		3.600	13
3.600	468	4.400	22
8.000	1.436	8.500	25
16.500	3.561	12.500	28
29.000	7.061	14.500	36
43.500	12.281	16.500	42
60.000	19.211	Gainerakoa	49"

Zioak: PFEZaren gehikortasuna eta zerga-bilketarako ahalmena areagotzearen aldekoak gara.

8. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 42. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. 60. artikulua.

"60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziak 100eko 18ko karga-tasa izanen du."

Zioak: Zerga arloan Estatuarekiko lehia ekiditea.

9. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 42. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"Berrogeita bigarrena. 60. artikulua.

60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziak foru lege honetako 59.1 artikuluko eskalan ezarritako karga-tasa izanen du."

Zioak: Plusbalioen kargak ezartzean gehikortasuna sartzearen aldekoak gara.

10. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari idatz-zati bat, 43. bis, gehitzeko zuzenketa. 62. 1. artikulua. 1. idatz-zatiko a) letrako bigarren lerrokada aldatzea.

"Kreditu entitateetan, erregelamendu bidez ezartzen diren formalizazio eta erabilera baldintzak betetzen dituzten kontuetan, uzten diren kopuruak izanen dira ohiko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberitzen erabilizat jotzen direnak, baldin eta ohiko etxebizitza erosi edo zaharberitzeko erabiltzen badira.

Ezkontza-deuseztasuneko, dibortzioko edo banantze judizialeko kasuetan, zergadunak kenkari hori baliatzen jarraitu ahalko du, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraikiz, ezkontzak indarra izan zuen bitartean ohiko etxebizitza izan zena eroste aldera zergaldian ordaindutako kopuruena hain zuzen ere, baldin eta ohiko etxebizitza izaten jarraitzen badu elkarrekin izaniko seme-alabentzat eta haiekin gelditzen den gurasoarentzat."

Zioak: Etxebizitzak eragindako kenkariak banantze kasuetan planteatzen duten arazo fiskalari aterabide bat ematea.

11. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari idatz-zati bat, berrogeita laugarrena bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Berrogeita laugarrena bis. 67. bis artikulua.

67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, 2005eko urtarriletik aurrera kenkari

gehigarria egin ahalko dute, kasuan kasuko pensio motarentzat finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokadan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun-pentsioa ez baldin bada zergaldi osoan zehar jasotakoa, zenbateko hori urtera eramane da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egiten.

Kenkaria baliatzeko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

2. Gizarte Segurantzatik kasuan kasuko pensio motarentzat finkatutako gutxienekoa baino gehiagokoak diren kotizaziopeko alargun-pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pensioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izanen da alde zurretik abonatu.

Alargun-pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.”

Zioak: Bidezkoa iruditzen zaigu alargun-pensio gutxienekoak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea, 2005etik aurrerako eraginarekin.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 58. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hoegita laugarren xedapen gehigarria. 3. idatz-zatia aldatzea.

“3. Zenbatespen objektiboaren araubideak zehazten dituen enpresa jardueretako etekinei %3ko konturako dirusarrera edo atxikipena aplikatuko zaie.”

Zioak: Atxikipenaren ehunekoa ezartzen denez, ez du zentzurik araubide komunean ezarritakoaz bestelakoa izatea.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari beste idatz-zati bat, 58. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Berrogeita hemezortzigarrena bis. Xedapen gehigarrietan beste bat gehitu da, hogeita laugarrena hain zuzen.

Xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan gutxieneko pertsonal eta familiarrek duten tratamendua aldatuko duena.

Aldaketa horren bidez, gutxieneko pertsonal eta familiarren tratamendua egiten da zergako kuota osoaren kenkari gisa, eta ez zerga oinarriaren murriztapen gisa.”

Zioak: Gehikortasun-printzipioaren aurkakoa da indarreko sistema; zenbat eta handiagoa izan zergadunaren errenta, handiagoa da gutxieneko pertsonal eta familiarretatik eratorritako aurrezpen fiskala.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari idatz-zati bat, 63. bis, gehitzeko zuzenketa. Xedapen idargabetzaile bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa.

“Bigarren xedapen indargabetzailea. Sozietateen gaineko zerga.

1. 2007ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietarako ondorioekin, indarrrik gabe geldituko da Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. tituluko II. kapitulua.

2. 2011ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietarako ondorioekin, indarrrik gabe geldituko dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 66. bis, 67., 68., 68. bis eta 69. artikulua.

3. 2012ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietarako ondorioekin, indarrrik gabe geldituko da Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 66. artikulua.”

Zioak: Zerga-tasak jaitea zenbait kenkari desagertzen direnean.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Orain dela egun gutxi batzuk eztabaidatu zen Ondareari buruzko Foru Legea. Ez da logikoa irakurketa bakarraren bidez aldatzea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

16. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Orain dela egun gutxi batzuk eztabaidatu zen Sozietateei buruzko Foru Legea. Ez da logikoa presako tramitearen bidez aldatzea.

17. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 9. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa (50. artikuluko 1.a).

“100eko 32,5” dioen tokian “100eko 35” esan behar du.

Zioak: Uste dugu egokia dela %35eko tipo orokorra berreskuratzea sozietateen gaineko zergan.

18. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 17. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Uste dugu bidegabeak direla ezarritako araubide berezia eta aurreikusitako zerga onura ikaragarriak.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 18. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Uste dugu bidegabeak direla ezarritako araubide berezia eta aurreikusitako zerga onura ikaragarriak.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 19. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Laugarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra S.A.k ondoko zerga onurak izanen ditu zerga honetan baldin eta haren kapitalaren 100eko 100 titulartasun publikoa bada.

a) Sozietatea eratzeko eta kapitala gehitzeko eragiketarako salbuespena.

b) Bere xedeak betetzeko egiten dituen mailegu-jaulkipeneko eragiketatarako salbuespena.

c) Bere xedeak betetzeko egiten dituen lursailen eta bestelako en higiezin erosketako eragiketatarako salbuespena.

d) Sozietatearen alde, maileguak, kredituak edo abalak bermatzeko ematen diren berme mota guztien kargaren gaineko zergarako salbuespena.”

Zioak: Egungo egoerara mugatzeko zerga onurak.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari idatz-zati bat, 5. bis, gehitzeko zuzenketa. 8.1.b) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“b) Aurreko letran xedatutakotik salbuetsiz, etxebizitzaren eskualdaketei, haien eranskin banaezinak barne, 100eko 3ko zerga ezarriko zaie, honako baldintza hauek betetzen badira:” (gainekoa, berdin)

Zioak: Etxebizitza eskuratzea da, oraindik ere, nafarrak gehien kezkatzen dituen arazoetako bat. Neurri horren bidez, etxebizitzaren gaineko zergakarga jaisten dugu.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Uste dugu ez dagoela justifikatuta 24/1996 Foru Legeko balantzeen eguneratzea.

23. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Orain dela gutxi aldatu da PFEZari buruzko legea, eta halere presako tramitazioa baliatuta egin nahi da aldaketa eta eman nahi zaio baimena Gobernuari PFEZari buruzko beste lege bat presta dezan. Ez da logikoa.

AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

24. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan beste bat, hirugarrena bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetan hirugarrena bis.

“1. Familiari Laguntzeko Planaren barrenean, laguntza hauek emanen dira:

a) Hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak dauzkaten familia-unitateei 2.400 euroko laguntza emanen zaie urtean seme-alaba bakoitzeko, familia-errenta gordina 42.000 eurotik beherakoa bada. Laguntza hori Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatuko du.

Laguntza hiru urtez emanen da, haurraren jaiotegunetik, edo familia-harrera iraunkorra edo adopzioaurrekoa erabakitzen duen ebazpen administratiboa edo adopzioa onartzen duen ebazpen judiziala ematen den egunetik kontatzen hasita.

b) Lau seme-alaba edo gehiagoko familiei 900 euro emanen zaizkie urtero 18 urtez azpiko seme-alaba bakoitzeko, laugarrenetik aitzina, haien errenta erregelamenduz ezartzen diren mugetatik gora ez badago.

Bi laguntzak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira.

2. Laguntza horiek Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eman eta kudeatuko ditu.

3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, urtero, laguntza horiek emateko deialdia argitaratuko du, baldintzak, zenbatekoa eta ordaintzeko modua zehaztuta.”

Zioak: Gure ustez, familientzako laguntzak hobetu beharra dago.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Erriberako zenbait baratze-eremutan barazkiak belzten dituen birusari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Nafarroako Erriberako zenbait baratze-eremutan barazkiak belzten dituen birusari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 29ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du barazkiak belzten dituen birusari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

— Ba al daki Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nafarroako Erriberako zenbait baratze-eremu barazkiak belzten dituen birusak jota dauden?

Bai. Dagoeneko 1993. urtean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko landareen osasunerako zerbitzuek zenbait foku isolatu detektatu zituzten; beraz, jarraipen sistematikoa egin da, eta birusaren 2005eko egoeraren ondorioz, jarraipen hori 2006. urtean handiagotu egin da.

— Aipatu birusak jotako lurra daudela egia bada, zer neurri hartu ditu gobernuak birusa kontrolatzeko?

Organismo horrek kutsa ditzakeen laboreak jarriko diren eremuetan eta landareak ekoizteko establezimenduetan Nekazaritza Departamentuak prospekzio sistematikoak (ikuskapenak, laginak

eta analisiak) egiten ditu birusa dagoen jakiteko, birusaren eboluzioa ikusteko eta, kasua bada, beharrezkoak diren jarduketak egiteko, betiere landareen osasunaren arloko legeriak ezarritakoari jarraikiz.

— Eman al dio departamentuak nekazariei inolako jarraibiderik birusaren eragina arintzeko edo saihesteko? Hala bada, zein izan dira jarraibide horiek?

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta Instituto Técnico y de Gestión Agrícola, S.A.k (aurrerantzean ITGA) organismo hori kontrolatzeko eta erazteko berariazko protokolo bat egin dute. Protokolo hori idatzi eta onetsi da Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusiak, apirilaren 12ko 502/2005 Ebazpenaren bidez, sortutako osasun batzordean.

Protokoloak hiru jarduketa ildo ezartzen ditu:

1. Informazioa eta dibulgazioa: Helburua da nekazariak honakoa jakitea: gaixotasuna ezagutzea; organismoa identifikatze aldera, laborearen arabera gaixotasunak dituen sintoma bereizgarriak ezagutzea; kutsa daitezkeen laboreak ezagutzea; birusa egon daitekeen susmoaren aurrean hartu beharreko jokabidea, eta abar.

2. Landa-jarduketak: Birusa agertzen den kasuetan, zerbitzu ofizialek ukitutako nekazariari jakinaraziko diote eta horrek egin beharreko urratsak ezarriko dituzte, hala nola, landareak garbitu eta intsektu bektorearen aurkako tratamenduak erabili.

Hori guztia Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kontrolatuko du, zuzenean edo ITGAREN bidez.

3. Esperimentazioa: ITGAK eginen du, organismo horren aurka borrokatzeko erabilgarria izan daitekeen informazioa lortzeko asmoz.

– Aztertu al ditu departamentuak izurrite horrek lur-sailetan izan ditzakeen ondorioak?

Departamentuak organismoa ahalik eta hobekien ezagutzeko beharrezkoak diren jarduketak egin ditu, batez ere, ezaugarri agroklimatikoak direla-eta birusak gehien jo dituen autonomia erkidegoekin informazioa trukatzuz; departamentuak gauza bera egiten du Europako zerrendan sarturik dauden eta garrantzi ekonomikoa izan dezaketen organismo kaltegarri guztiekin.

Egindako erantzunak zabaltzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan esku-

ra dago landareak belzten dituen birusa kontrolatzeko eta erazteko protokoloa aplikatzeko 2006. urteko txostena. Txostenaren tamainarengatik, ez zaigu egokia iruditu erantzunarekin batera bidaltzea; dena den, hala nahi izanez gero eskuragarri dago.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 16an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, “Programa berekiak” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du “Programa berekiak” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du “Programa berekiak” izeneko kontusailarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Galdera egin da jakiteko zer aldaketa egin diren edo zein programa berri jarri dituen abian Kultura Departamentuak 250.000 euroko kreditu gehikuntza behar izateko.

Segur aski, aipatu nahi da A20002 A2510 2279 335100 “Programa berekiak” izeneko kontusailean izandako 235.487,76 euroko kreditu gehikuntza; izan ere, ez da bestelako transferentziarik egin kontusail horretara.

Horrela bada, adierazi behar dut aipatu transferentzia hori Kultura eta Turismo kontseilariak maiatzaren 20an emandako 66/2006 Foru Aginduren ondorio dela; foru agindu horrek Kultura eta Turismo kontseilariaren abenduaren 11ko 211/2003 Foru Aginduaren bidez emandako dirulaguntza baten itzulketara espedientearen bidez zen gautatu onuradunak uko egin ziolako— ebatzi zuen.

Diru-kopuru hori departamentuaren gastuen aurrekontuan sartu berri da; zehazki, goian aipaturiko kontusailean

Kontusail horretan izandako diru gehikuntza Kultur Ekintza Zerbitzuak zuzenean kudeatzen dituen zenbait programetara bideratu da, besteak beste, familientzako eta eskolentzako kontzertuetara, “Punto de Vista” zinema jaialdira, Lizarrako antzinako musikaren aстера eta organo musikaren ziklora; bestalde, beste jarduera batzuk egiteko ere erabiliko da, esaterako, 2006. urterako jardueren txostena argitaratzeko edo CULTURA 07 argitalpenaren hurrengo edizioa egiteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 4an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Larrialdietako Agentziari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Nafarroako Larrialdietako Agentziari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Nafarroako Larrialdietako Agentziari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

– Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak planteatu al du publizitate plan bat Nafarroako Larrialdietako Agentzia ezagutarazteko?

Ezer baino lehen adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa –abendua 3ko 15/2004 Foru Legean zehaztutakoari jarraituz– egituratuta dagoela departamentuan eta ez kontseilaritzatan, eta kontseilaria departamentuaren titularra dela. Hori esan ondoren, adierazi behar dut publizitate kanpaina bat diseinatu dela Nafarroako Larrialdietarako Agentzia ezagutarazteko.

– Zer kontusaila dago aipatu agentziaren publizitatea egiteko?

Kanpaina Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren “publizitate grafikoa” izeneko 220002 22100 2262 921500 kontusailaren kargura ordaindu da.

– Zenbat iragarki kontratatu dira hedabideetan aipatu agentziaren publizitatea egiteko?

Osoz, 19 iragarki kontratatu dira bertako egunkari eta aldizkarietan eta 240 iragarki labur hiru irratitan.

– Zein hedabidetan argitaratu dira iragarki horiek?

Aipatu kanpainarako hedabide hauek erabili dira:

- Diario de Navarra
- Diario de Noticias
- ADN
- Onda Cero
- Radio Navarra-Cope
- Ser Navarra
- Calle Mayor
- Plaza Nueva
- Ribera Navarra
- La Voz de la Ribera
- Ttipi Ttappa
- Entreten2
- Guaixe
- Mendixut
- Mailope
- Ibaialde
- Ze Berri

– Eman al zaio enpresaren bati agentziaren logotipoa egiteko ardura?

Bai.

– Zenbateko kostua izan du?

Azkeneko kostua 3.480 eurokoa izan da, BEZa barne.

– Esleitzeko zein sistema hautatu da? Zein enpresari egin zaio esleipena?

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak publizitate instituzionalerako erabili ohi duen prozeduraren bidez esleitu da, beraz, Gap’s Comunicación Pamplona enpresari esleitu zaio eta enpresa berak egin du publizitate kanpaina; izan ere, enpresa hori, lehiaketa publikoaren bidez, 2006ko Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzional orokorra kudeatzeko esleipen-hartzailea da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 16an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Donejakue bideko autobideko seinale bertikalei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Donejakue bideko autobideko seinale bertikalei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Donejakue bideko A-12 autobideko seinale bertikalak ordaintzeko inbertsioari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

Iruña eta Logroño lotzeko Donejakue bideko autobidea amaitu ondoren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Inbertitu diren 324 milioi eurotatik, zenbat diru erabili da autobideko seinale bertikalak ordaintzeko?

2. Zenbateko kostua izan dute, obrak direla eta, autobide sartzeko toki-errepideetan eraberritutako 86 kilometrotako errotulu eta seinale bertikalak?

Erantzuna:

Donejakue bideko A-12 autobideko seinale bertikalak 2.437.627,45 euro inbertitu dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 16an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, ikasturte hasieran gabeziak dituzten ikastetxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du ikasturte hasieran gabeziak dituzten ikastetxeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko irailaren 29ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren datuen arabera 2006-2007 ikasturtearen hasieran gabeziak edo azpiegitura eza dituzten ikastetxeei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako ikastetxeek 2006-2007 ikasturtea normaltasunez hasi dute, eskolak ematen hasteko behar dituzten ekipamendua, material didaktikoak eta altzariak dauzkate, ondoren aipatuko diren salbuespen batzuk kenduta:

Hezkuntza Departamentuak burututako obrak:

1) Berriozar

Hezkuntza Departamentuak, udalak Mendialdea ikastetxearen biltegi gisa erabilitako lokal bateko beheko solairuan, lau ikasgela berri, komunak eta biltegia egiteko obrak eta proiektuaren kontratazioa gauzatu du.

Hasiera batean, aurreikusita zegoen obrak amaiera eguna 2006ko uztailaren 24a izatea, eta kontratistak zituen hainbat arazo ezagutu ondoren, lanak abuztuaren hirugarren astean bukatuko zituela hitz eman zuen.

Data horretatik, Hezkuntza Departamentuak, behin eta berriro, obrak nola dauden ikuskatzeko bisita teknikoak egin ditu eta, halaber, ikasgela berrietarako altzariak ikastetxeari eman zaizkiola egiaztatu du.

Ikasturte honetako lehen egunetik, ikasgela horietako ikasleak egon dira "A" ereduko ikasleei euskara emateko 40 metro koadroko gela batean, zuzendaritzaren ondoan, 119 metro koadroko psikomotrizitate gela batean eta hizkuntzako bi ikasgeletan, 44 eta 46 metro koadrokoak, hurrenez hurren.

Irailaren 6an, hezkuntzako ikuskatzaileek eta obretako teknikariak lanak bisitatu zituzten eta ondoko lanak egin gabe zeudela ikusi zuten: berokuntzako eta igeltserotzako zenbait lan, pertsianak paratzea eta hormak pintatzea.

Eraikuntza-enpresak lan guztiak irailaren 14rako bukatzeko konpromisoa hartu zuen; hori dela-eta, altzariak kokatzea eta garbiketa, behar izanez gero, 15, 16 eta 17rako programatu ziren, horrela, irailaren 18an, astelehenean, dena prest hasteko egon zedin. Hezkuntza Departamentuko arkitekto batek, irailaren 18ko, asteleheneko goizeko 8,30etan hori horrela zela egiaztatu zuen

Ukitutako ikasle kopurua: D ereduko haur hezkuntzako bigarren zikloko 4 ikastalde (91 ikasle).

2) Santakara

Ikasturte honetan, ikastetxea zabaltzeko eta eraberritzeko lanak egingen dira. Hori dela-eta, ikasturtea hasi baino lehen, obrak isolatzeko trenkadak eraiki ziren eta haur hezkuntzako 18 ikasle ikastetxe zaharrera – bertan, gaur egun, haur hezkuntzako lehen zikloa (0-3urte bitartekoa) dago– eraman ziren.

Hara joan ziren ikasleak A eta G eredukoak dira.

Udalek burututako obrak.

1) Mendabia (hitzarmena eta dirulaguntza)

Udala "Joaquín Romera" DBHI hobetzeko eta eraberritzeko lanak egiten ari da.

Hezkuntza Departamentuko teknikariek, ikasturtea hasi baino lehen egindako bisitan, honakoa egin zela egiaztatu zuten:

Leihoak aldatzea, ikasgeletako zokaloak lauaztea, barruko ateak aldatzea eta komunak eraberritzea.

Hori dela-eta, klaseak obrak egiten ari ez diren tokietan ematen hasi ziren; beraz, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak, obra bukatu arte, mojen ikastetxe zahar batera joan dira.

Ukitutako ikasle kopurua honakoa da: DBHko 3. mailako 48 ikasle eta 4. mailako 35 ikasle (A eta G eredukoak).

2) Viana (hitzarmena)

Udala eraikina zabaltzeko obra egiten ari da, eta lanak 2007ko martxora arte luzatuko direla aurreikusita dago. Galdara-gela berri da eta berogailuaren galdarak aldatu dira; lan horiek jantokia eta sukaldea ukitu dituzte; hori dela-eta, jantokia ez zen irailaren 14ra arte abian jarri.

Obrek, batez ere, ikastetxeko sarreran eragin dute, udala, ikastetxea zabaltzeko obrak gain, kaleko zoladura jartzen ari delako, hori dela-eta, ikasleak haur hezkuntzako eraikinaren ondoko sarbideetik sartu dira.

Nola edo hala, obrak ikasle guztiak ukitu edo ukituko ditu: haur hezkuntzako 66 ikasle eta lehen hezkuntzako 115 (G eta A eredukoak); izan ere, obrak espazioen kokapenean eta ikastetxeko sarbideetan aldaketak ekarriko ditu.

3) Murillo el Fruto (dirulaguntza)

Udala, termitek eragindako kalteak direla-eta, ikastetxeko beheko eta lehenengo solairuetako azpiegitura konpontzen ari da. Obrak bukatu arte, ikasleak udalak –Hezkuntza Departamentuko ikuskaritza teknikoaren laguntzaz– egokitutako ikasgeletan egonen dira

Ikasle guztiak eraikinetik kanpo daude, hau da, guztira, haur hezkuntzako 19 ume eta lehen hezkuntzako 35 ikasle (A eta G eredukoak).

4) Oibar (dirulaguntza)

Ikastetxea eraberritzeko eta handitzeko lanak egiten ari dira. Obrak isolatzeko hasierako birmoldaketak egin ondoren, haur hezkuntzako ikasleak lekuz aldatzeko beharra ikusi zen eta 0-3 urte bitarteko eraikinera eraman ziren; bertan, behin-behineko ikasgela bat eta komunak dituzte.

Guztira, A ereduko 22 ikasle aldatu ziren lekuz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 17an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

– 93520-923001-4819-231300 proiektuaren betetze maila.

- Gastuen banaketa zehatza, hala entitate pribatuei nola entitate publikoei.

Kontusailaren betetze maila, 2006ko irailaren 30ean, honako hau da:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%
Hasierako kreditua	3.407.752,00	
Aurrekontuen aldaketak	320.141,00	
Kreditu bateratua	3.727.893,00	100,00
Kreditu erabilgarria	0,00	0,00
Baimendu eta erabilitako kreditua	3.727.893,00	100,00
2006-9-30ean betebeharreko kreditua	2.776.091,47	74,47
Betebeharra ezarri gabeko kreditua	951.801,53	25,53

Kontusaila, hortaz, % 100 bete da. Betebeharra ezarri gabeko kreditua egoteak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoari jarraitzen dio

Bigarren galderari dagokionez, aipatu behar da kontusailaren betetzea egin dela, alde batetik, pertsona ezgaituen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko 2006ko deialdiaren bidez; deialdi hori Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak onetsi zuen urtarrilaren 30eko 12/2006 Foru Aginduaren bidez

(15. NAO n argitaratua), eta 1.483.908,58 euroko gastua baimendu zuen; horietatik 1.467.983,58 euro galderan aipatutako “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko 923001-93530-4819-231300 kontusailari egotzi zitzaizkion. Beste aldetik, kontusailaren betetzea egin da kasuan kasuko hitzarmenetan dirulaguntzen xedearen arabera hautatutako zenbait entitateri emandako dirulaguntzen bidez, beste edozein interesduni dirulaguntza eskuratzeko aukera kentzen diona.

Hortaz, deialdi horren onuradunak pertsona ezgaituen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateak ziren. Dirulaguntzak jaso dituzten entitate guztiak elkarteak dira, federazio bat kenduta, eta beraz, entitate pribatuak dira.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari nagusiak, maiatzaren 30eko 2175/2006 Ebazpenaren bidez, onetsi zuen deialdia, eta ondoko dirulaguntzak ordainketa bakarrean ematea erabaki zuen:

ENTITATEA	ZENBATEKOA
ADANO	42.462,00
ADEMNA	29.023,03
ADHI	4.500,00
AECC	5.893,67
ALCER	3.968,02
AMIFE	4.500,00
AMIMET	23.240,67
ANDA	4.500,00
ANPHEB	33.933,74
ASPACE	24.511,40
ACODIFNA (*)	95.365,63
FUND. CIGANDA FERRER	48.862,89
SINDROME DE DOWN	26.576,52
EUNATE	17.494,33
FUNDACIÓN TUTELAR	1.575,00
FEAPS	15.681,31
HEMOFILIA	4.500,00
LARINGECTOMIZADOS	7.474,65
OKILE	3.825,00
ONCE	1.575,00
RETINOSIS PIGMENTARIA	30.811,70
GUZTIRA	430.274,56

(*) Acofidina zerrenda horretan sartzea akats materiala izan zen, eta ekainaren 2ko 2249/2006 Ebazpenaren bidez zuzendu zen.

Halaber, ondoko entitateei dirulaguntza zatika ordaintzea erabaki zen:

ENTITATEA	ZENBATEKOA
ADACEN	211.249,00
ANASAPS	383.772,35
ANFAS	306.265,03
ASORNA	76.085,01
ATENA	60.337,63
GUZTIRA	1.037.709,02

Kontusailaren gainontzekoa, arestian aipatu denez, kasuan kasuko hitzarmenetan xedearen arabera hautatutako ondoko dirulaguntzen bidez bete da:

ENTITATEA	XEDEA	ZENBATEKOA
Congregación Esclavas Virgen Dolorosa	Javier egoitza, ezgaitasuna duten emakumeei laguntzea	711.294,00
ANFAS	Zaintzapeko etxebizitzak	241.884,60
ADACEN	Garuneko kaltea dutenentzako aldi baterako egonaldia	61.790,00
ELKARKIDE, S.L.	Adimen-gaixoentzako zentro okupazionala	790.479,82
ANFAS	Laguntza goiztiarreko programa	134.320,00
ANASAPS	Esku-hartze soziokomunitarioko programa	320.141,00
GUZTIRA		2.259.909,42

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Gobernuan 2006. urtean Larraina klubari emandako diru kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuan 2006. urtean Larraina klubari emandako diru kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Larraina klubak 2006. urtean jasoko duen diruari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat diru emanen dio Nafarroako Gobernuak Larraina klubari 2006. urtean?

Ondoko taulan zehazten dira Iruñeko Larraina klubak Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuan eskatutako dirulaguntzak eta espediente bakoitzaren izapidearen egoera.

FORU AGINDUA	FEDERAZIOA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPEN ZENBAKIA	ZENBATEKOA
MARTXOAREN 27KO 72/06	PILOTA	ERREMINTA	OHOREZKO MAILA	IZAPIDE ADMINISTRATIBOAN	3.750
MARTXOAREN 27KO 71/06	PILOTA	PALA MOTZA	IRUÑEKO PALA MOTZEKO NAZIOARTEKO IREKIA 2006	EBATZI GABE	

2. Zenbat diru jaso du klub horrek dirulaguntza moduan azken bost urteetan?

Ondoko taulan zehazten dira klubak, kirol ekitaldiak antolatzeagatik eta instalazioetan obrak egiteagatik, 2001. urtetik 2005. urtera jasotako diru kopuruak.

2001. urtean: kirol jarduerak direla eta

FEDERAZIOA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPEN ZENBAKIA.	ZENBATEKOA
PILOTA	ERREMINTA	COPA S. LUIS NAZIOARTEKO TXAPELKETA. KUBA (PILOTA)	751/01	1.112,71
IGERIKETA	WATERPOLO	CIUDAD DE PAMPLONA WATERPOLO TXAPELKETA	49/02	510,86
IGERIKETA	WATERPOLO	16 URTETIK BEHETIKOENTZAKO EUSKALERRIA LIGA. WATERPOLO	747/01	1.072,27
IGERIKETA	WATERPOLO	LEHEN MAILAKO EUSKALERRIA LIGA. WATERPOLO	747/01	1.377,83
IGERIKETA	WATERPOLO	A-2 OHOREZKO MAILAKO WATERPOLO LIGA	747/01	28.662,52
			GUZTIRA	32.736,19

2002. urtean: kirol jarduerak direla eta

FEDERAZIOA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPEN ZENBAKIA	ZENBATEKOA
PILOTA	ERREMINTA	KLUBEN ARTEKO ESPAINIAKO TXAPELKETA. OHOREZKO MAILA. ERREMINTA	277/02	1.647,17
IGERIKETA	WATERPOLO	IRUÑA HIRIA WATERPOLO TXAPELKETA	824/02	510,00
IGERIKETA	WATERPOLO	A-2 OHOREZKO MAILAKO WATERPOLO LIGA	850/02	27.045,54
IGERIKETA	WATERPOLO	A-2 OHOREZKO MAILAKO WATERPOLO LIGA	742/02	27.045,54
IGERIKETA	WATERPOLO	ESPAINIAKO ETA EUSKAL HERRIKO WATERPOLO TXAPELKETA	850/02	2.451,10
			GUZTIRA	58.699,35

2003. urtean: kirol jarduerak direla eta

FEDERAZIOA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPEN ZENBAKIA	ZENBATEKOA
PILOTA	ERREMINTA	KLUBEN ARTEKO ESPAINIAKO TXAPELKETA. OHOREZKO MAILA. ERREMINTA	783/03	1.646,00
IGERIKETA	WATERPOLO	IRUÑA HIRIA WATERPOLO TXAPELKETA	740/03	720,00
IGERIKETA	IGERIKETA	ESPAINIAKO MASTER TXAPELKETA	740/03	570,00
IGERIKETA	WATERPOLO	LEHENGO MAILAKO EUSKALERRIA LIGA. WATERPOLO	782/03	3.781,00
IGERIKETA	WATERPOLO	A-2 OHOREZKO MAILAKO WATERPOLO LIGA	429/03	45.234,00
IGERIKETA	WATERPOLO	EGONALDIA- PREZIOAN SALBUESPENA		816,84
			GUZTIRA	52.767,84

2004. urtean: kirol jarduerak direla eta

FEDERAZIOA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPEN ZENBAKIA	ZENBATEKOA
PILOTA	ERREMINTA	KLUBEN ARTEKO ESPAINIAKO TXAPELKETA. OHOREZKO MAILA. ERREMINTA	309/04	3.750,00
IGERIKETA	WATERPOLO	16 URTE BEHEITIKOENTZAKO EUSKALERRIA LIGA. WATERPOLO	628/04	3.137,00
IGERIKETA	WATERPOLO	GAZTEENTZAKO EUSKALERRIA LIGA. WATERPOLO	480/04	774,00
IGERIKETA	WATERPOLO	LEHEN MAILAKO EUSKALERRIA LIGA. WATERPOLO	628/04	1.440,00
IGERIKETA	WATERPOLO	A-2 OHOREZKO MAILAKO WATERPOLO LIGA	309/04 ETA 628/04	90.000,00
IGERIKETA	WATERPOLO	EGONALDIA- PREZIOAN SALBUESPENA		1.503,29
IGERIKETA	WATERPOLO	ESPAINIAKO MASTER 40 TXAPELKETA. WATERPOLO	480/04	1.391,00
			GUZTIRA	101.995,29

2004. urtean: instalazioetako obrak direla-eta

AZALPENA	EBAZPEN ZENBAKIA	ZENBATEKOA
KIROL INSTALAZIOAK HANDITZEKO OBRAK	476/04	112.690
		GUZTIRA
		112.690

2005. urtean: kirol jarduerak direla eta

FEDERAZIOA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPEN ZENBAKIA	ZENBATEKOA
PILOTA	ERREMINTA	KLUBEN ARTEKO ESPAINIAKO TXAPELKETA. OHOREZKO MAILA. ERREMINTA	437/05	3.876,00
			GUZTIRA	3.876

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 19an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
María Isabel García Malo

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	